


Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako enpresaetako praktiken kopurua gora doa zitzu bizian! (UPV/EHU)

2013/2014 ikasturte honetan (maiatzaren 5 arte), Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak enpresekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenek kopuruak **gainditu egin du krisialdiaren aurrean sinatutakoena**, hau da, **2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako hitzarmenek kopuru!** Ekonomian krisia gainditzen ari den sintoma ote?

150 hitzarmen eta Lehen Aukera 12 beka sinatu ditugu dagoeneko, gure esparruko 75etik gorako enpresekin sinatutako hitzarmenak izan dira, enpresa handiekin (Michelin España Portugal SA, Spainiako Mercedes-Benz, Iberdrola SA edo Aernnova SA), hain handiak izan ez baina guretzat garrantzitsuak diren enpresekin (IDOM Ingeniería y Consultoría SA, ABGAM Grupo Segula Technologies SA, EGA Master SA, Biopraxis Research AIE), erakundeekin (Vitoria-Gasteizko Udala), edo enpresa txikiek (Geograma SL, Torniplaza SAL, Servicort System SL, Digital Ingeniería eta Gestión SL).



Borondatezko praktika hauek aukera ematen diente ikasleei enpresekin lehen kontaktu bat izateko. Batez beste, 550 orduko iraupena izaten dute praktika horiek, eta ikastegian jasotako prestakuntza teorikoa eta praktikoa osatzeko balio ohi dute. Eta, kasu askotan, Gradu Amaierako Lana egiteko ere zaie baliagarri. Hainbat kasutan, ikasleek titulua lortutakoan, lan kontratua egiten zaie. Kontuan hartzen badugu 2012/2013 ikasturtean 197 tituludun izan genituela, lasai asko esan ahal dugu gure ikasleen % 80k borondatezko praktiken esperientzia bizi izan dutela. Eta, oraindik ere, ikasturtea bukatu gabe dagoela, hitzarmenak sinatzen jarraitzen dugu, enpresek ikasleak eskatzen dizkigute eta.

Praktiken %65ean ikasleek hilean, batez beste, 500 euro inguru jasotzen dituzte eta, jakina, familiek matrikularen egindako ahalegin ekonomikoa konpentsatzen du nolabait diru horrek.

Enpresek egindako praktikekiko erakusten duten gogobetetzea oso handia da: **4.5 (gehierekiko nota 5 izanda)**. Era berean, ikasleek erakusten duten gogobetetzea ere altu samarra da: **3.85 (gehierekiko nota 4 izanda)**.

Enpresek gure ikasleak behin eta berriro eskatu izana eta erakutsitako gogobetetze indize altuak oso sintoma onak dira eta argi adierazten dute ikastegian emandako prestakuntza teorikoa eta praktikoa gaurkotuta daudela eta industrian eta gizartean detektatutako beharretara ere moldatuta daudela. Gure helburu nagusia da ildo horretatik segitza, ingeniaritzako prestakuntzan ikastegiak kalitateko erreferentzia izaten jarraitu nahi du eta.

Hori guztia ezinezkoa litzateke gure ingurueta enpresa sareak lagunduko ez balu. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolarekin lan egiten duten enpresei, hezkuntza lankidetzarako hitzarmenen bidez laguntzen dutenei ez ezik, beste eginkizun hauetan ere laguntzen dutenei: espezializazio jardunaldi eta ikastaroetan, haien instalazioak bisitatzen, ekipamendua ematen, etab.

2013/2014 ikasturte honetan, oraingoz, enpresa hauekin sinatu ditugu hitzarmenak:

